


BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



ARROITAJAUREGI. ARROITAJAUREGI ARGAZKI FUNTSA. AZKOITIKO UDAL ARTXIBOA

LUXIA TXAPELDUN HANDIA, 1950EKO HAMARKADAN

1950eko udan, Martin Garziarena leitzarrak Donostiako aizkolari txapelketa irabazi zuen. Txapelketa hartan Juan Baleztenak, hura ere nafarra, eta Ignacio Orbegoza Juaristi *Arria I* eta Antonio Soraluze *Korta* gipuzkoarrek ere parte hartu zuten. Hilabete batzuk geroago, 1950eko urriaren 29an, Martin Garziarena leitzarraren eta Juan Jose Narvaiza *Luxia* azkoitiarraren arteko norgehiagoka izan zen Donostian, milioi erdi pezeta jokoan zeudela. Luxiak hamar segundo eskasen aldea atera zion Garziarenari. Bi urteren buruan, erre-bantxan, berriro irabazi zuen Luxiak. Erakustaldi eta lehiaketa gehienetan irabazten zuen Luxiak, harik eta 1959an Ramon Lata-sa sunbildarrak lekua kendu zion arte. Iru-dian, tamaina handiko enbor baten gainean, Juan Jose Narvaiza aizkolaria ageri da, Azkoitiko pilotalekuan, joan den mendeko 50eko hamarkadan. Argazkia Daniel Arroitauregi Elkoro argazkilariak egin zuen. Arroitauregi Eibarren jaio zen 1890ean, eta gerraostean Azkoitiko gizarte bizitza jaso zuen bere ka-merarekin. Datorren azaroaren 18ra arte, Torre Zuri aretoan zabalik egongo da Azkoitiko Udalak antolatu duen argazki erakusketa, "Azkoitiko Estantak 1950-1968, Arroitajau-regi Argazki Bilduma" izenburuduna. Argazki horiek Danielek eta haren seme Josuk egin zituzten, azken honek aitaren lekukoa hartu baitzuen. Garai batean Azkoitiko argazkilari profesional bakarra izan zen.